



Dantzaren erritmoan abiatuko da Euskaraldia

Burunba eta Elektropottotte taldeek Andoain dantzan jarriko dute, ostegunean. Klaap taldeko gaztetxoek bideoa ostiralean zabalduko da / 2-9

Arixen Unanue eta Xabi Salaberria, ahobizi rolean ariko diren urnietarrei elkarrizketa / 2-3

Belarriprest rolean ariko diren Aitor Sorozabal eta Rosa Elozegi urnietarrei elkarrizketa / 2-3

Ekimen handiko Euskaraldia izango da Andoaingoa. Hitzordurik ez da faltako, egunotan / 7

Belarriprest rola balioan jartzeko bideo-sorta argitaratu du Andoaingo Euskaraldiak / 8

Ariguneak eskainiko dituzten entitateen kopurua handitu egin da Andoainean eta Urnietan / 9

EUSKARALDIA

ANDOAIN
Azaroak 17, osteguna

Pintxopottotte

19:00tan hasita
BURRUNBA
ELEKTROTXARANGA TABERNETAN



ELEKTROPOTTOTTE
ZUMEA PLAZA
20:30

Bastero
Hiru
Trañerum

Irunberri
Txindoki
Gaztelutxo

Muga
Amama
Klaudia

97
Txuri-
beltz

Txitibar
Danena
Txalaka



ANDOAINGO UDALA



andoainDARRA
euskaraz

“Euskararekin dudan konfiantza ez daukat beste hizkuntza batekin”

ARIKEN UNANUE AHOBIZI

Euskaraz bizi da elkarriketatua, eta, hala, ahobizi rolean ariko da Euskaraldiak iraun bitartean: lehen hitza beti euskaraz egitea du erronka

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Zein harreman daukazu euskarekin egunerokoan?

Betidanik izan dut harreman estua euskararekin: nire ama hizkuntza da euskara, eta gurasoek horrelaxe hitz egin didate txikia nintzenetik. Biak ala biak euskaldunak dira, bai etxean, bai bertatik kanpo. Horrez gain, nire bizitzako aldi eta arlo guztietan jaso dut euskara, besteak beste, euskal eskola publikoan ikasi dudalako, eta, gaur egun, unibertsitate ikasketak euskaraz gauzatzen ari naiz. Beti egiten dut euskaraz; euskararekin dudan konfiantza ez daukat beste hizkuntza batekin; gainera, ama hizkuntzan azaltzeko dudan erraztasuna nire alde izan dut beti. Nire aisialdiari dagokionez, nahiz eta eremu guztiak ez izan euskaldunak, elebitan izan ohi ditut elkarriketak.

Parte hartzen duzun lehen aldia al da? Zein roletan aritu izan zara, eta aurten?

Ez dut beti parte hartu. Lehenengo edizioan, parte hartu nuen, garai hartan hamasei betetzen nituelako. Bigarren edizioan, ez nuen izena eman,



Arixen Unanue. AIURRI

eta, aurten, berriro ere, txapa jantziko dut. Guztietan ahobizi rolean aritu naiz. Gasteizen bizi naiz unibertsitate-ikasketengatik; hala, lehen hitza euskaraz egitea erronka handiagoa izango da.

Zergatik da garrantzitsua horrelako ekimenak egitea?

Horrelako ekimenekin, ikusgarritasuna ematen zaio hizkuntzari: “Uste nuena baino jende

gehiagok ulertzen eta hitz egiten du euskaraz”. Izan ere, askotan, aurreiritziak medio, jende askok lehen hitza gaztelaniaz egiten du. Hori horrela, euskaraz hitz egitearen aldeko apustua sustatzen du txapa jantzita eramateak. **Erronka pertsonalik finkatu al duzu Euskaraldirako?**

Erronka pertsonal nagusirik ez. Baina, lehen esan dudanaren harira, lehen hitza beti euskaraz egitea dut erronka; alderdi hori zaindu nahi dut.

Euskaraldia eta gero zer? Hizkuntza ohituretan benetan utziko al du arrastorik?

Euskararekin orain gutxi harremana hartu duten horientzat oso lagungarria izan daiteke Euskaraldia. Hamabost egun horietan, praktika lortuta, euskararen bidean jarraitzeko motibazioa eta interesa areagotzeko aukera da Euskaraldia.

"EUSKARAZ HITZ EGITEAREN ALDEKO APUSTUA SUSTATZEN DU TXAPA JANTZITA ERAMATEAK"

“Ahobizi bezain garrantzitsua da belarriprest rola”

ROSA ELOSEGI BELARRIPREST

Belarriprest rolean egongo da, lehenengoz



Rosa Elosgi. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Zein harreman daukazu euskarekin egunerokoan?

Beti ahalegintzen naiz hasieratik euskaraz zuzentzen. Lehen, ez nintzen ausartzen, baina konfiantza hartu dut: nahiz eta, batzuetan, zalantza izan ea parekoak euskaraz dakien ala ez, nik beti, lehen hitza euskaraz. Ulertzen ez badu, hizkuntza al daketa egiten dut. Oso inportantea da niretzat euskaraz hitz egitea; horrela bizi naiz.

Parte hartzen duzun lehen aldia al da? Zein roletan aritu izan zara, eta aurten?

Aurreko edizioetan parte hartu dut, baita antolaketa-lanetan egon ere: ahobizi rolean aritu naiz, baina, oraingoan, belarriprest. Ahobizi izatea bezain garrantzitsua da belarriprest rola. **Zergatik da inportantea horrelako ekimenak egitea?**

Oso garrantzitsua dela iruditzen zait. Garai batean, ezinezkoa zen horrelako zerbait burutik pasatzea. Euskaldun berria naiz ni eta aski tematuta ikasi dut euskara. Hala, bidean den jendeari bultzada ematen die ariketak; posible dela ikusten dute. Gure jarrera beti izan behar da euskararen aldekoa.

Erronka pertsonalik finkatu al duzu Euskaraldirako?

Ahaleginak egingo ditut euskaraz hitz egiteko, eta, bide batez, niri ere horrelaxe zuzentzeko. **Euskaraldia eta gero, zer? Hizkuntza-ohituretan benetan utziko al du arrastorik?**

Maite dut euskara, nire barnean daramat. Hamabost egunean, kalera atera behar dugu euskara; bada, hortik aurrera, indar handiagoa hartu dezala. Baliogarria da hizkuntzaren alde egiten den guztia.

"Euskaraz gehiago hitz egiteko gogoa pizten zait Euskaraldiarekin"

AITOR SOROZABAL BELARRIPREST

Parte hartzen duen lehen aldia da

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Behin hasita, hamabost egunetako erronka zabaltzeko asmoa du: urte osoan, euskaraz egunerok jardutea

Zein harreman daukazu euskarekin egunerokoan?

Eskolan, tailerrean nahiz lagunekin euskaraz jarduten naiz, baita parranda-giroan ere.

Parte hartzen duzun lehen aldia al da?

Bai. Aurtengoan, behintzat, belarriprest izango naiz, etxean, familiarekin ezin dudalako euskaraz hitz egin.

Zer ematen dizu Euskaraldiak?

"BELARRIPREST IZANGO NAIZ, ETXEAN, FAMILIAREKIN EZIN DUDALAKO EUSKARAZ HITZ EGIN"



Aitor Sorozabal. AIURRI

Euskaraz gehiago hitz egiteko gogoa pizten zait.

Erronka pertsonalik finkatu al duzu Euskaraldirako?

Urte osoan euskaraz aritzea da nire erronka.

Euskaraldia eta gero, zer?

Euskaraz hitz egiten eta bizitzen jarraitu nahi dut, geroz eta eremu gehiagotan.

Garrantzitsua iruditzen al zaizu Euskaraldia bezalako hizkuntza-ariketak sortzea?

Jakina. Garrantzitsua da, euskara ez galtzeko.

“Nahi baino gutxiago entzuten da euskara”

XABIER SALABERRIA AHOBIZI

Bizitza osoa euskalgintzatik gertu emana du Salaberriak. Euskaraldian parte hartzen duen lehen aldia da

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Zein harreman daukazu euskarekin egunerokoan?

Euskaldun peto-petoak gara familian, eta euskaraz jandun izan gara beti emaztea eta biok, baita gure hiru alabekin ere. Beti erabili izan dugu euskara, eta horrelaxe jarraituko dugu etorkizunean.

Parte hartzen duzun lehen aldia al da?

Lehengoan eman nuen izena, herrian egin zen Euskaraldiaren aurkezpen-ekitaldian. Txapa eskuratu nuen, baina ez da hori soilik, bada erantzukizunik. Ea nola moldatzen garen, nire lehen aldia baita.



Xabier Salaberria. AIURRI

Zergatik da garrantzitsua horrelako ekimenak egitea?

47 urte igaro dira jada hona bizitzera etorri ginenetik. Euskara entzuten bada ere, nahi baino gutxiago, asko erdaldundu baita Urnietak. Aberasgarria izango dela iruditzen zait, zenbat eta gauza gehiago egin, hobe.

Erronka pertsonalik finkatu al duzu Euskaraldirako?

Ez, bereziki. Behar bada, ariketak iraun bitartean, sortuko da zerbait.

Euskaraldia eta gero, zer? Hizkuntza ohituretan benetan utziko al du arrastorik?

Inguruan, euskara erabiltzen ahalegintzen naiz. Hilabete bakoitzaren azken ostiralean, kaleratzen gara kantari Kantazauneko kideok. Zaletasun horrekin jarraituko dut, bai eta, ahal dudan beste, jendearekin euskaraz hitz egiten ere.

**"ABERASGARRIA
IZANGO DA
EUSKARALDIA;
ZENBAT ETA GAUZA
GEHIAGO EGIN, HOBE"**

**"Tik-Tokaldia",
gazteen parte-hartzea
sustatzeko lehiaketa**

TikTok lehiaketa bat abian jarri du Urnietako Euskaraldiak. Parte-hartzaileek Euskaraldiaren hirugarren edizioako kantaren zati bat abestu eta dantzatu beharko dute eta, publikatzerakoan, ondorengo helbideak eta traolak jarri beharko dituzte: @euskaraldia.urnieta #Euskaraldia2022 #HitzezEkiteko #Aho-bizi #Belarriprest #Arigunea #Lorpen #Erronka. Parte-hartzeke interesa dutenek azaroaren 17ra arte dute bideoak bidaltzeko aukera. Publikazioei dago-kienez, 16 urtetik gorako bideoak soilik partekatuko dira Euskaraldiko kontuan, irudien babes legearengatik, baina parte-hartzaile guztien artean sari eder bat zozketatuko da.

**PARTE-HARTZAILE
GUZTIEN ARTEAN SARI
BAT ZOZKETATUKO DU
URNIETAKO
EUSKARALDIK**

EUSKARALDIA

**TXAPA SOINEAN,
AURRERA
EUSKARA!**

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra



Urnietako
udala

“Euskara dugu oinarri langileon artean, baita ikasleekin ere”

AMESTI ARIGUNEA

Klase partikularrak ematen dituen akademia da Amesti. Euskara du bere jardunaren oinarri eta gogotsu dago Euskaraldian parte hartzeko



Ane Garcia eta Ainhoa Garcia. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

2005. urtetik aurrera, martxan dabilen akademia da Amesti. Eskolako lanetan ikasleen bide-lagun izatea du xede espazioak, modu pertsonalizatuan bideratutako klaseekin. Horrez gain, urte osoan, askotariko tailerrak antolatzen dira bertan. Bertako irakasleak dira Ane Garcia eta Ainhoa Garcia.

Arigune gisa, Euskaraldian parte hartzen duzuen lehen aldia al da?

Bai, eta gogotsu gaude erronkari eusteko. Hezkuntzari bideratutako espazioa izanik, garrantzitsua iruditzen zaigu ariketa honetan inplikatzeari.

Zuen balioekin bat egiten al du Euskaraldiak?

Euskara dugu espazio honetan lanabes, eta D ereduan ikasi ohi duen jendea dator gurera. Beraz, bai, badu lotura Amestik Euskaraldiak oinarri dituen balioekin, eta, behin ariketa amaituta ere, jarraipena emango diogu espazio honetan euskarari ematen diogun garrantziari.

Nolakoa da langileen euskararen ezagutza, eta erabilera?

Ezagutza eta erabilera maila ona dugu Amestiko langile guztiek. Hala, kalitatezko zerbitzua ematen diegu gurera bertaratzen diren ikasleei. Eduki guztiak euskaraz lantzen ditugu, bestelako hizkuntzak (adibidez, ingelesa edota gaztelania) kenduta, jakina.

Nolanahi ere euskara dugu oinarri langileon artean, baita ikasleekin ere.

Eta bertaratzen diren ikasleena?

Ikasleek, oro har, euskara maila altua dute, bai beren ama hizkuntza delako, bai D ereduko ikasleak direlako. Halere, ezagutza ona badute ere, zenbaitean, erabilerari dagokionez, gaztelaniara jotzeko joera dute gurekin harremantzeko edota beren artean hitz egiteko. Hala, uneren batean, gurekin, elkarriketa elebidunak izan ohi dituzte: guk euskaraz hitz egin, eta beraiek gaztelaniaz erantzun.

Zein aurreikusten duzue izango dela zuen erronkarik zailena?

Bada, hain justu ere, berriki aipatu dizuguna. Erabilerari dagokionez, salto hori egitea. Ikasleek euskaraz bizi daitekeela jabetu behar dira, modu batera edo bestera, ulertzeko euskara ez dela soilik esparru akademikoari begirako hizkuntza bat, eskolatik at ere badela hitz egiterik.

Garrantzitsua iruditzen al zaizue Euskaraldia bezalako hizkuntza-eraketak sortzea?

Bai, jakina. Gurea bezalako hizkuntza gutxitua kalera ateratzea ezinbestekoa delako. Espazio guztiak hartu behar ditu euskarak, ikusgarritasuna emateko eta hizkuntzari berari merezi duen balioa emateko. Euskaraldia ez da irtenbidea, abiapuntua baizik. Horrelako ekintzen bidez, herriarren kontzientzia eragina izan eta, hamabost egunetan egiten den ariketari, urteko gainerako egunetan, jarraipena ematea da gakoa.

"KALITATEZKO ZERBITZUA EMATEN DIEGU GURERA BERTARATZEN DIREN IKASLEEI"

"EUSKARALDIA EZ DA IRTENBIDEA, ABIAPUNTUA BAIZIK"



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnieta).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



“Urte osoan jorratzen ditugu euskararen aldeko ekintzak”

EGAPE IKASTOLA ARIGUNEA

Lehen aldiz hartuko du parte Egape Ikastolak Euskaraldian, arigune rolean. Halere, urteko egun guztietan dute xede euskararen sustapena



Amaia Amutxastegi eta Aitziber Zipitria. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Euskaraldian ez ezik, urte osoan ere euskararen bidean dabil-buru belarri lanean Egape Ikastola. Lehen Hezkuntzako zein Haur Hezkuntzako zuzendaria da Aitziber Zipitria, eta Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako Amaia Amutxastegi.

Zuen balioekin bat egiten al du Euskaraldiak?

Amaia Amutxastegi: Erabat. Euskara eta euskal kulturaren transmisiorako sortu zen Egape Ikastola. Horixe izan dugu helburu eta lan-ildo: ezagutza, erabilera, sustapena, zabalkundea...

Aitziber Zipitria: Egun, helburu berbera badugu ere, ekintzak garaian-garaian moldatzen joan gara.

Zein lanketa egin duzue ikasleekin Euskaraldiaren harira?

A.Z.: Urte osoan jorratzen ditugu euskararen aldeko ekintzak. Hala, Euskaraldiaren harira, adin bakoitzari egokitutako kanpainak egiten ditugu, batez ere, euskararen erabilera areagotzeko.

A.A.: Euskaralditik kanpo, hizkuntza-normalkuntza planean, jarduera mordoxka ditugu, eta horiekin jarraitzen dugu. Azken urteetan, Euslider programan hartu izan dugu parte, ikasleak, euskararen sustapenean, parte-hartzaile aktibo izan daitezen, AEKren formakuntza jaso ostean. Aurtun, gurean horiek ipini ditugu Euskaraldiaren kanpainan protagonista, ohiko jarduek aparte: pankartak ipini zituzten, herriko Euskaraldiaren koordinatzailearekin beraiek bildu ziren...

Lan-talde bat daukagu lanean hizkuntza-proiektuan, eta ikasleekin biltzen dira. Hala, gogoz ikusten dira ikasleak parte hartzen.

A.A.: HH-LH-n, Euskararen As-tea egiten dugu, azaroaren 28tik abenduaren 2ra bitarte, askotariko ekintzak izango ditugu gurean euskararen bueltan (jolasak, pelikulak...). Euskaraldiko azken egunean ospatuko dugu guk Euskararen Eguna, abenduaren 3a larunbata delako.

Zuenera etorrita, zenbateko presentzia du euskarak eskolako korridoreetan?

A.Z.: Erabileran dugu guk erronkarik handiena. Gelan bai, baina hortik kanpo...

A.A.: Erronka baino, arazoa esango nuke nik, eta handia, gainera. Urte asko daramatzat hemen, eta, klaseak eman gabe, bost, zuzendaritzan nagoelako. Batzuetan, zaintza egitea tokatzen zait, eta ikaratu egiten naiz. Izugarri jaitsi da erabilera; gaztelaniaz aritzen dira denbora osoan. Lehen, ikasleak euskaraz zuzentzen zitzaizkion irakasleari; orain, ez. Oso kezkatuta gaudere erabilerarekin.

A.Z.: Txiki-txiki kasuan, beren gurasoak euskaraz ikasitakoak dira. Baina, dena dela... Gainera, aisian, gaztelania da nagusi, eskola-kirolean, adibidez. **Garrantzitsua iruditzen al zaizue Euskaraldia bezalako hizkuntza-eraketak sortzea?**

A.A.: Euskararen aldeko edozein ekimen da inportantea. Euskaraldia baliagarria izango da, behintzat, zenbait kontzientzia astintzeko.

A.Z.: Guk beti jarraituko dugu lanean euskararen alde.

"EUSKARALDIA BALIAGARRIA IZANGO DA, ZENBAIT KONTZIENTZIA ASTINTZEKO"



Orain arte argitaratu gabeko argazkia da. Aurtengo San Juan jaietan Zumea plazan taldeko argazkia atera zuten axeriek, Euskaraldiarekin bat eginez. Afitxa handi hori plazan zintzilikatuta dago, egun. AIURRI

Euskaraldia iristerako, ekimen handia erakutsi du Andoain herriak

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak urtearen hasieran ekin zion lanari. Udalaren Euskara lansailarekin lankidetzan, egitasmo ugari eman ditu aurrera. Euskaraldia iristerako sentsibilizazio lan handia egin da Andoainen

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Hirugarren edizioan beste modu batera lan egiteko erabakia hartu zen. Hasteko eta behin, ditxosozko pandemia gainditu izanak kalean aritzea ahalbidetzen zuelako. Horrexegatik udaberrian ekin zion Larramendi Bazkunak sentsibilizazio lanari. "Euskaraldiaren Txokoa" izeneko ekimena abian jarri zen,

auzoko jaietan haurrei begirako aisialdi ekitaldia eskainiz. Santa Krutz jaietan eta Kaletxikiko, Karrikako, Etxeberrietako, Goiburuko eta Buruntzako jaietan Kili-Kolo kooperatiba izan zen ekimenaren dinamizatzailea, Larramendi Bazkunarekin lankidetzan. Sanjuanak amaitu eta biharamunean, herri bilera deitu zen Bastero Kulturgunean,

eta, bertan, Andoaingo Euskaraldiaren batzordea martxan jarri zen. Lehen helburua irailera begira jarri zen. Aurkezpen-festa egin zen, bokata-afari eta guzti, eta, hortik aurrera, Ainhoa Manterolak zuzendutako batzordeak abiada hartu zuen. Euskaraldia iristerako, ekimena handia erakutsi du, beraz, Andoaingo herriak.

Hilabeteetako sentsibilizazio-lana



Santakruzetan hasita, jairik jai, Euskaraldiaren txokoa martxan izan zen. AIURRI



Ane Jalon Bazkuneko lehendakaria, ekaineko aurkezpen-ekitaldian. AIURRI



Elektropottoteko bi kide. AIURRI

PINTXOPOTTOTTE Azaroak 17, osteguna 19:00. Herrigunea.

Pintxoak dastatzeko aukera izango da honako tabernetan: Bastero, Hiru, Traiñerum, Irunberri, Txindoki, Gaztelutxo, Txuri-beltz, Muga, Amama Klau-dia, 97, Txitibar, Txalaka eta Danena. Zasan, txapa hartzeko aukera izango da, Kale Nagusian. Belarriprest eta ahobizi roletan hasteko moduko plan bikaina, pintxo-potearena. Musikaren erritmora, gainera.



Gari. TTAP

GARI & MALDANBERA Azaroak 18, ostirala 19:00. Bastero.


Aurkezpenik behar ez duen kantaria. Andoaindarrak zortekoak izango dira, gainera, disko berria eskuetan iritsiko baita Bastero-ra. Are gehiago, aurkezpen-bira ostiralean bertan abiatuko da. Maldanberako musikariekin batera ibilaldi oparoa osatu du, eta haiekin batera ondu du disko berriena. Kantari eta sortzaile bikaina dator kigu, ez galdu Basterora hurbiltzeko aukera.



Iñaki Eizmendi. AIURRI

KANTU BAZKARIA Azaroak 19, larunbata 14:00. Batzokia.

Batzokiak ekarpena egin nahi izan dio Euskaraldiari. Kantuz harrera egingo dio euskara sustatzearen aldeko ariketa kolektiboari. Eizmendi kantaria eta Urdangarin musikaria ariko dira bazkalostea girotzen. Menua bikaina da: Txaka eta otarrainskaz betetako endibiak, onddo nahaskia, bakailaoa tomate eta piperrekin, ijito-beso bizkotxo, sagardoa, ardoa edo ura, kafea.



Zezen suzkoa. AIURRI

EUSKARALDIA FESTA Abenduak 2, ostirala 19:00. Goikoplaza.

Euskaraldia abenduaren 2an amaituko da, eta azken ospakizuna egun horretan bertan egingo da. Aurreratu daiteke Egape Dantza Taldeak Euskaraldiaren kantuen koreografia eskainiko duela. "Lebi" zezen suzkoak ere agerpena egingo du. Bestalde, Santa Krutz Peñan bertso-afaria egingo da iluntzeko 20:30ean hasita. Lizaso eta Zubeldia ariko dira kantuan.



"Ez dok ero". TARTEAN

ANTZERKIA Abenduak 4, igandea 19:00. Bastero.

"Euskal Herriko antzoki ia guztiak zoramenez, ainaldiz, arinduraz, aztoramenaz, durduzaduraz, eldarnioz, erauzimenduz, haizekeriaz, harrikadaz, nahasmenez eta ganorabakokeriaz blai utzi ondoren, antzoki txikiak, kultur aretoak edota disziplina anitzeko saloietara joan nahi dugu gure erotasuna barreiatzera". Alegia, konpainiakoak pitzatuta daudela!

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

EMAN BULTZADA EUSKARARI!

EUSKARALDIA



ANDOINGO UDALA



andoaINDARRA
euskaraz



Vanesa Lago. AIURRI

"ULERTZEN DUT, BAINA HITZ EGITEKO ZAILTASUNAK DITUT, GAZTELANIAZ BIZI GINELAKO ETXEAN"



Ekain Zubizarreta. AIURRI

"ROLA HARTZEKO GARAIA, ZINTZOAK IZATEA DAGOKIGU. BELARRIPRESTA EZ DA GUTXIETSI BEHAR"



Kanza Zemmouri. AIURRI

"EUSKALTEGIAN EUSKARAZ IKASTEN ARI NAIZ, EUSKARAZ JARDUN AHAL IZATEKO"



Roge Aira. AIURRI

"LANEAN, BEZEROEKIN NAGOENEA, BETI PREST NAGO EUSKARA ERABILTZEKO"



Rocio Arias. AIURRI

"GURASOEN ETXEAN ERDARAZ HITZ EGITEN GENUEN. BOST URTE DIRA EUSKALTEGIAN NABILELA"

Belarriprest izatearen garrantzia Euskaraldian

Andoaingo Udalaren Euskara lanskailaren ekimenez, belarriprest ariko diren herrikideei protagonismoa ematen dien bideo-sorta zabaltzen ari da Andoaingo Euskaraldia batzordea. Borondatea eta ekimena erakusten ari diren herrikideak dira

Erredakzioa ANDOAIN

"Zure euskara da euskararik onena", esaldi hori irakur daiteke Euskaraldiak belarriprest ariko direnen gomendioen artean.

Ahobiziak etengabe euskaraz aritzeko helburuan murgilduko dira. Belarriprestak, aldiz, euskaraz ahalegintzeko ekimena erakutsiko du. Egun hauetan,

hainbat kanalen bidez, Andoaingo belarriprest talde baten bideoak zabaltzen ari da Andoaingo Euskaraldia batzordea. Denek dute hitz bat komunean: gogoia.



Marta Delgado. AIURRI

"HIZKUNTZA EZAGUTZEN AHALEGINTZEA GARRANTZITSUA DELA DERITZOT"



Gorka Novillo. AIURRI

"BELARRIPREST ARITZEA ERDARAZKO JOERA ALDATZEKO SAIAKERA BAT DA NIRETZAT"

Klaap-ekoen koreografia, Euskaraldiaren kantuen erritmora

Aurreko larunbatean, Andoaingo Klaap dantza eskolako 60 gaztetxo hurbildu ziren Basterora. Gogo biziz aritu ziren Euskaraldiaren kantuen gainean landutako koreografia dantzatzaz. Aiurrik eta Euskaraldiak bideoz grabatu dute, eta egun hauetan ikusgai izango da. Kultura lanskailaren eta Basteroko profesionalen lankidetzaz ezinbestekoa izan zen bideoaren ekoizpena gauzatu ahal izateko.



Andoaingo 118 entitate, Euskaraldiarekin bat

Euskaraz eroso aritzeko espazioa arigunea da. Udalerriko 118 entitatek bat egin dute Euskaraldiarekin. Entitate batzuetan espazio bat baino gehiago egokituko ditu, euskaraz aritzeko. Denera 195 arigune izango dira. Aurreko edizioan baino gehiago

Erredakzioa ANDOAIN

Indarrez dator Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Eta entitateek presentzia hartuko dute herrian: dendak, zerbitzuak, enpresak, etab. Egun hauetan ikusgai agertu dira Ariguneen identifikagarriak erakusleioetan; lagungarri izango dira herritarrontzat, azaroaren 18tik aurrera euskararen praktika areagotzeko.

Entitateak

- A. Etxeberria harategia
- Adats ileapaindegia
- AEK
- Aita Larramendi ikastola
- Aiurri-Erroitiz
- Akerbeltz taberna
- Aldama Tapia
- Alice
- Amabi haur eta gazte jantziak
- Amama klaudia
- Amantegi mertzeria
- Anaiak taberna
- Axeri dantza taldea
- Gazte Lokala
- Gaztetxea
- Andoaingo Kooperatiba
- Andoaingo Ludoteka
- Andoaingo PSE-EE
- Andoaingo Udala
- Anita goxotegia
- Arberas margoak
- Argi ileapaindegia
- Arruti gozotegia
- Asun denda
- Bai Euskarari elkarteak
- Bar Blue
- Bastero estankoa
- Bastero kafetegia
- Batzokia
- BBVA
- Belkoain fisioterapia zerbitzua
- Berria taldea
- Betilore loredenda
- Bira produkzioak
- Caixabank
- Danena
- Delgado liburudenda
- Domusa Teknik
- Edergai
- EH Bilduren Bilgunea
- Ekhiia Physio
- Elena Monfort Farmazia



Ariguneak ez dira Andoainean faltako. AIURRI

- Elisabet Zatarain farmazia
- Elkar
- Emagin
- Emun Kooperatiba
- Ernai Andoain
- Ernaitza liburudenda
- Estanko 2 Andoain
- Etxeberria harategia
- Kontseilua
- Topagunea
- Frutas Anaiak
- Galpar akademia
- Gamer
- Ganbara taberna
- Gazteleku Pilota Elkartea
- Gaztelutxo taberna
- Gloss denda
- Gorostidi Burdindegia
- Goxotz goxo-denda
- Hegoa harategia
- Iñaxi gozotegia
- Ingurubikes
- Irunberri
- Iturbe zapatadenda
- IZT Kooperatiba
- Joseba altzariak
- Kabia
- Keinua euskal jantziak
- Kurpil Garmendia
- La Salle Berrozpe
- Laboral Kutxa
- Labores arantza
- Lanbroa taberna
- Larru Txoko
- Latz kooperatiba
- Le Petit Atelier
- Lebiton konpartsa
- Leitz KKE
- Leizaran institutua
- Li denda
- Loiri aholkularitza
- Lopetegi harategia
- Maindi optika
- Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
- Mapfre aseguroak
- Marta pedagogia zentroa
- Vascongada ehorzketa taldea
- Mendikute harategia
- Mizpiradi sagardotegia
- Nuevo siglo ileapaindegia
- Oloki taberna
- Ondarreta ikastetxea
- Ormendi kirolak
- Pepi lentzeria
- Plastigaur S.A.
- Reparators
- Rural Kutxa
- Saldias arraindegia
- Sara Pajares botika
- Euskalduna Andoaindarra KE
- Stop liburudenda
- Tahona
- Traka gazte talde feminista
- Txitibar taberna
- Urki dantza taldea
- Urkiola taberna
- Urrats inprimategia
- Uvesco supermerkatuak (BM eta Super Amara)
- Xalo prentsa eta loteriak
- Xare oinetakoak
- Xixori belardenda
- Zabala bitxitegia



AIURRI

Txapa soinean janzteko garaia

Ahobizi eta belarriprest aritzeko egunak gainean ditugu. Txapa soinean janzteko garaia da, beraz. Horretarako txapa eskuratu behar da. Euskaraldiaren bitartez jaso badaitezke ere, Andoain Kale Nagusiko egoitzan eskuratu daitezke. Egun hauetan jende asko hurbiltzen ari da Zasa zenaren egoitzara, txapa bila.

Kale Nagusian egoitza

Andoaingo Euskaraldiaren bulegoa ZASako lokalean dago, Kale Nagusiko 33. zenbakian. Astegunetan, asteazkenetik ostiralera irekiko da, 17:30-20:00 bitartean. Euskaraldiko produktuak izango dira salgai: jertseak, kamixetak, poltsak, eta kaleak apaintzeko banderak. Eta, nola ez, ahobizi eta belarriprest txapak.



Euskaraldiaren berri izango duzu, irakurle, Aiurri.eus webgunean

Deialdiak, argazkiak, bideoak, albisteak.
BADATOR EUSKARALDIA!

www.aiurri.eus

Erredakzioa BETERRI-BURUNTZA

Euskarazko produktuen bilduma aberatsa dugu eskura sarean urte osoan katalogoa.eus atarian, nahi dugun hori aurkitzeko bilaketa sistema erraz batekin. Urtean behin, azaroan, web orrialdean dagoen eskaintza zabal horren lagin bat papereko edizioan jaso eta herriz herriz zabaltzen dute Hego Euskal Herrian barrena, egitasmoan parte hartzen duten lau herrialdeotako udal eta mankomunitate hainbatek. Tartean Buruntzaldean, prestaketa eta banaketa lanez arduratzen diren Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalen eskutik.

Ikastetxeetan nahiz udal zerbitzuetan uzten dituzte, herri-tarrek eskuratu eta etxetara eramateko. Katalogoaren papereko ediziorako materialen hautaketarako lan talde bat dute. Disken aukeraketaz arduratzen da Jon Eskisabel. Argitaletxe nahiz autoekoizpen aldetik dagoen sorkuntza jario etengabetik 32 lan hautatu behar izaten ditu 12-16 urte arteko gazteei zuzendutako eskaintza biltzen duen esku-orrirako, dozena inguru 0-12 urte arteko haurrei zuzendurikoan. Badok.eus Berriaren euskal musikaren atarian lan egiten jardundakoa, erreferentziagune gisa baliatu izan du webgune hau katalogoa.eus elikatzeko. “Astero argitaratzen ziren diskoen gainean egon naiz. Informazio asko nire ohiko lanetik jasotzen nuen. Argitaratzen zihona Katalogoaren webgunea igotzea”, horixe izan da bere egitekoa.

Sorkuntza lan bakoitzari informazioa eranstean dio; norena den, nork argitaratua, non eskura daitekeen...

Katalogoa, euskal sorkuntzaren erakusleihu bizia

Liburuak, jostailuak eta jokoak, musika, filmak, komikiak, aldizkariak, e-bookak, informatika eta app-ak, gurasoentzako materiala... 0-16 urte artekoentzako milaka produktu, guztiak euskaraz, klik bakarrera, www.katalogoa.eus web orrialdean



“Katalogoak euskarazko ekoizpenari ikusgarritasuna ematen dio. Beharbada hori da helburu nagusietako bat”.

"Oreka bat mantentzen saiatzen gara"

Sarean ere lan bera egiten du Eskisabelek, baina hautaketa lan hain zorrotzik egin beharrik

izan gabe. Bai autoekoizpenak, baita argitaletxeek plazaraturikoak ere, “denak igotzen ditut. Baina argitaratzen diren asko gero ez daude salgai online”.

Hortxe lerrootan mintzagai dugun atariak duen muga saihestezina; webgunearen logika, erakusleihoa izateaz gain, euskarazko produktuok gero sale-

rosketan jartzen dituzten argitaletxeetara bideratzea baita. Bistan denez, ordea, autoekoizpenen kasuan ez da posible. Horregatik, diskoen kasuan, katalogoan argitaratua izateko baldintza nagusia, betebeharreko euskararen irizpidez gain, online salgai egotea da. “Lan autoekoizti asko dago kontzertu edo tabernetan saltzen dituztenak eta zaila da online Interneten erostea. Horregatik horiek normalean ez ditut zintzilikatzen”, dio Eskisabelek. Gainerakoan, bereizketarik ez du egiten, “ez estilo, jatorri, oihartzun, edota taldearen tamainaren aldetik. Halako oreka bat mantentzen saiatzen naiz”.

Ikusgarritasuna, hedapenerako giltzarri

Lanketa hau guztia zertarako baliagarria den galdetu diogu Eskisabeli. “Euskarazko ekoizpenari ikusgarritasuna ematen laguntzen du. Beharbada hori da katalogoaren helburu nagusietako bat”. Erakusteko dagoena ez da eskaintza urria. “Ekoizpen hori guztia zabaltzen laguntzea, ikusgarritasuna eman eta jendearengana heltzea, hori da helburu nagusia. Ikusgarritasun horrek emango dio gero ekoizpen horri bultzada, kontsumitua izateko aukera, jendeak hautatzeko modua izan dezan. Ikusgarritasunik gabe ez dago ezer”. Horregatik bere ustez, “inoiz baino beharrezkoagoa da ikusgarritasun hori bermatzea”.

Ildo horretan, halako egitasmo gehiagoren beharra sumatzen du Jon Eskisabelek. “Euskal Herri osoko eskualde eta herrietan antzeko ekimenak martxan jartzea ez legoke gaizki. Sekulako ezagutza falta dago, lan handia egiteke”.

Aisialdia euskaraz bizitzeko

Euskarazko Produktuen Katalogoa Nafarroan sortu zuten, euskara teknikariak biltzen dituen mankomunitatetik, aisialdirako dauden euskarazko produktuen berri eman asmoz gurasoei, eta sortze lanon salerosketa bultzatzeko, “azken batean, gaztetxo horiek aisialdia euskaraz bizitzeko”, Malores Etxeberria Hernaniko Udaleko euskara teknikari ohiak azaldu digunez. Duen eskaintza eta hedadura

aintzakotzat hartuta, Euskal Herrian bereizgarriok dituen proiektu bakar honetara batu ziren Buruntzaldea osatzen duten sei udalerrietako udalak. “Gustatu egin zitzaigun eta haiekin hartuemanetan jarri ginen, parte hartzeko aukera izango genukeen jakiteko”, eta halaxe hasi ziren, jada mende laurdena betetzear duen katalogoan esku-hartzen. Nafarroatik eskualde honetara

jauzi egin zuen proiektuak. Eta denborarekin, Buruntzaldetik “Gipuzkoara, Bizkaira eta Arabara zabaltzen”. Aztikerrekin eginiko azterlan txoak agerian utzi zuen katalogoak euskarazko produktuen salerosketetan bazuela eragina, eta beste datu esanguratsu bat; paperak agintzen zuela oraindik, digitalizazioaren aldeko apustua egin duten arren.

Egun, udalerrri parte hartzaileen kopurua “kopuru politoan mantentzen da”. Baina badira katalogoaren ordez, katalogoa. eus webguneak harpidetzen bidez eskaintzen duen pdf-a eskuratu nahi izaten duten udalerrriak. Egitasmoaren bideragarritasunean eragiten du horrek, izan ere papereko edizioak ordaintzen ditu egitasmoaren gastuak. Dagoen eskaintza “erauntsi horretan leku

bat bilatzea oso zaila da”, baina hor dirau mende laurdenez katalogoak. Halako izaera duen egitasmo bakarra Euskal Herrian. Ibilbide luze honen gakoa nabarmendu digu Malores Etxeberriak. “Elkartzeak eta aurrez aurrekoak egiten du proiektuak aurrera ateratzea eta horrek badu balio bat”, 25 urte betetzear dituen Euskarazko Produktuen Katalogoak argi utzi duen moduan.

MURGILDU, AURKITU, GOZATU!

0-12 urte

JOSTAILU ETA JOKOAK
MUSIKA
DVD FILMAK
APP-AK
ALDIZKARIAK
LIBURUAK
GURASOENTZAKO
MATERIALA
KOMIKIAK



EUSKARAZKO PRODUKTUEN

KATALOGOA

2022-2023



Saridunak eta finalistak, Bastero Kulturgunean, Ainara Ugalde, Yolanda Arrieta, Maider Lainez eta Txitxu Ruizekin batera. AIURRI

Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa

Edizio berria burutu da, dagoeneko hogeitaseigarrena. Literaturan eta ipuingintzan trebatzeko aukera aparta da. Ohi bezala, sari banaketa ekitaldi dotorea antolatu zuen Andoaingo Udalak

Xabier Lasa ANDOAIN

Garazi Kamiok aurkeztu zuen ekitaldia, eta bertan izan zen Martin Ugaldere alaba Ainara. Eta ekitaldian bertan parte hartu zuten ere Maider Lainez Andoaingo alkateak, Txitxu Ruiz Hezkuntza eta Kultura zinegotziak eta Yolanda Arrieta Euskal Idazleen elkarteko ordezkariak.

Sariak nori eman erabakitze-ko garaian, epaimahaikide ari-tu dira Garazi Kamio, Karlos Linazasoro, Juan Ramon Makuso eta Iñaxio Mujika. Ekitaldian barrena, Mikel Empezabal Udaltasun Musika Eskolako klarinete irakasleak eta bere ikasleek bi pieza jo zituzten.

150 ipuin aurkeztu dira aurretik: A kategorian (10-11 urte), 23 lan aurkeztu dira, B kategorian (12-13 urte), 43 lan, C kategorian (14-15 urte), 34 lan, eta D kategorian (16-17 urte), 50 lan.

Saridunak eta finalistak

A kategoria (10-11 urte):

- * 1. Saria: "Ezin egun okerragorik eduki". Libe Arruti Etxabe.
- * 2. Saria: "Hitz totela naiz, arazoren bat?". Eneritz Telleria Martin.
- * Finalista: "Ez da posible". Libe Azpiroz Delgado.

B kategoria (12-13 urte):

- * 1. Saria: "Mikeba". Aiora Otamendi Baltasar.
- * 2. Saria: "Ez amore eman". Aiora Diez Muñoz.
- * Finalistak: "Mundu ezberdina". Hegoa Palacios Zabala; "Hegan goaz". Maren Aranburu Ugalde.

C kategoria (14-15 urte):

- * 1. Saria: "minBIZI". Naroa Asensio Gaston
- * 2. Saria: "Patua". Asier Bergara Beola.
- * Finalistak: "Uraren koloreak". Nora Urtasun Vicente; "Bi bizitzako detektibea". Marta Vazquez Martin; "Anaiak". Laiene Arteaga Eizagirre.

D kategoria (16-17 urte):

- * 1. Saria: "Ba al dakizu nor izan den...". Luken Txopeitia Zulueta.
- * 2. Saria: "Bakartien Patua". Manex Arruabarrena Amonarraiz.
- * Finalistak: "Azken dantza". Ainhoa Georg Urtasun; "Ubitarte kalea". Miren Zatarain Beraza; "Mila esker Memphis". Beñat Uribe Amondarain.



10-11 urteko sarituak. AIURRI



12-13 urteko ikasleen artean nabarmendu dituzten egileak. AIURRI



14-15 urteko ipuingile gazteak, irudian. AIURRI



16-17 urteko saridunak. AIURRI

Behobia-Donostia

Javi Menta Zumeatarrako korrikalaria izan zen Andoaingo eta Urnietako korrikalarien artean lehena. 32. postuan sailkatu zen, 01:06:23 denborarekin. Iazko denbora nabarmen hobetu zuen (01:07:55). Lehen urnietarra Unai Martinez izan zen, 01:10:39 denborarekin. Emakumezkoetan Bego Villas izan zen lehen urnietarra (1:37:42). Andoaingoan artean, berriz, Pili Lazaro (1:45:22).



Javi Menta.



Andrea Isasa eta Lorea Barkaiztegi urnietarrak.



Maixabel Iribarren eta Nagore Arizaga ama-alabak.

Sei garaipen, berdinketa bat

Ligako lehen zazpi jardunaldiak igaro ostean, garaitezin jarraitzen du Leizaran jubenil mailako taldeak. Azken jardunaldian iritsi zen berdinketa, Ereintzaren aurka lortutakoa (32-32). Sailkapenean bigarren postuan daude 13 punturekin. Ligari, beraz, maila bikainean ekin diote. Liderra Usurbil da, eta hain zuzen han jokatu dute larunbat honetan (13:00).



LEIZARAN



Nerea Arruti, garaile. SHERPA.AI

Nerea Arruti urnietarra, garaile Bizkaiko Arenan

Indarra hartzen ari den Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusian garaipen handia lortu zuen

Erredakzioa URNIETA

Nerea Arruti eta Julen Alberdi (Txikia IV) txapeldun bilakatu ziren, Bilbao Arenan, Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren hirugarren edizioan. Emakumezkoetan, Nerea Arrutik irabazi zuen, 12 minutu eta 16 segundoko abantailarekin, 45 hatzbeteko 4 enbor ebakiz. Bigarrena, Irati Astondoa izan zen, 15 minutu eta 58 segundu eginda eta, hirugarren postuan, Uxua Ansonogui sailkatu zen, 17 minutu eta 52 segundurekin amaituta. Urnietarrak maila

ikusgarria erakutsi du txapelketan eta marka harrigarria lortu du bigarren sailkatuari 12 minututik gora aterata.

Gizonezkoetan, berriz, Julen Alberdi (Txikia IV) txapeldunak, hamabi enborrak (4 kana erdi, 4 ontza eta 4 oinbiko) 42 minutu eta 39 segundotan ebaki zituen. Bigarrenak, Eneko Otañok, 45 minutu eta 16 segundotan, eta, hirugarrenak, Mikel Larrañagak, 46 minutu eta 08 segundotan.

3.000 ikusletik gora gerturatu ziren Bilbao Arenara, aizkolariak ikustera.

NEREA ARRUTI ETA JULEN ALBERDI IZAN DIRA AURTENGO TXAPELKETAKO IRABAZLEAK

HIRU MILA IKUSLE BERTARATU ZIREN BILBAO ARENARA. GARAIPENAREN LEKUKO IZAN ZIREN

AZAROAK 19 LARUNBATA
16:30ETIK AURRERA

1GO PARTIDUA 35 TANTO
ETXARRI • ZALDUA
LOITEGI • APEZETXEA

BINAKAKO PARTIDUA 40 TANTO
ANSA II • JUANENEA
ALDABE • AZPIROZ

3. PARTIDUA 40 TANTO
SEGUROLA • BARRENETXEA IV
EZKURRA II • LARRAÑAGA

BINAKAKO Orona Fundazioa

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

ORIA MENDI | ERREMONTEA BIZIRIK | PAPELERA GUZUPCOIANA DE ZUMARRA, S.A.U. | SUKIA | K | AIURRI



Magale ikastetxearen haur eskolako eraikinean egingo da tailerra. MAGALE

“Hoponopono” antzezlan Saroben, igande honetan

Iluntzeko 20:00etan hasita, Les Figurettes antzerki-taldearen eskutik

Erredakzioa URNIETA

Polinesiar irletako herri-kulturretan, pertsonen egiten zituzten akatsak gaixotasunen eragileak zirela uste zen, jainkoen animoak ernegatzen zituztelako. "Buru higienea" bezalako zerbait esan nahi du hopononok hawaieraz. Uharte hartako bertakoek familia-batzarrak egiten zituzten, non harremanak hitzen, eztabaidaren,

eta, azken batean, maitasunaren bidez bideratzen eta orekatzen baitziren.

Tradizio horri jarraituz, Paloma eta Pilar Ayahuasca, probatzearen, erretiro espiritual batera doazen bi ahizpa dira. Gure protagonistek, tragikomedio gisa, mahai gainean jarriko dituzte beren beldur, blokeo eta zauri sakonenak.

Azaroaren 25era bitarte eskuratu daitezke bonuak

Andoaingo Udalak 2.300 kontsumo-bonu atera ditu, "Han edo hemen, erosi Andoainen" kanpainaren baitan. Herriko denda eta ostalaritza-establezimenduetan kontsumoa sustatzeko, Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailak Salkin elkartearekin lankidetzan sustatu dute ekimena. Aurkezpenean parte hartu zuten Maider Lainez Andoaingo alkateak, Mari Jose Izagirre Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria zinegotziak eta Salkineko lehendakari berriak, Xixoriko Jone Etxeberriak. Bonuak 21etik 25era erosi ahal izango dira Salkinen lokalean. Erabiltzeko epea urtarrilaren 6an amaituko da.

rekin lankidetzan sustatu dute ekimena. Aurkezpenean parte hartu zuten Maider Lainez Andoaingo alkateak, Mari Jose Izagirre Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria zinegotziak eta Salkineko lehendakari berriak, Xixoriko Jone Etxeberriak. Bonuak 21etik 25era erosi ahal izango dira Salkinen lokalean. Erabiltzeko epea urtarrilaren 6an amaituko da.



Magale ikastetxearen haur eskolako eraikinean egingo da tailerra. MAGALE

Masaje tailerra antolatu du Magale ikastetxeak

Azaroaren 22an izango da haur eskolako eraikinean, arratsaldeko 15:00etan hasita

Erredakzioa URNIETA

Masaje-tailerra antolatu du Magale ikastetxeak, 0-1 urte bitarteko haurrentzat nahiz beren gurasoentzat. Mertxe Bermejo psikologoak gidatuko du hitzordua haur eskolako eraikinean, hilaren 22an, asteartearrekin, eguerdiko 15:00etan.

Antolatzaileek adierazi dutenez, "urnietarrentzat eta, inguruko

herrietan, interesa duen edonorentzat irekia" dago proposamena. Kutsu praktikoa izango du ikastaroak, eta, hala, masajeak haurrengan dituzten onuren berri izango dute bertaratzen direnek.

Parte hartu nahi izanez gero, deitu 943 55 17 82 zenbakira edota eman izena Magaleko webgunean.

"Korapiloak askatzen" dokumentala

Andoaingo zenbait biktimen testigantzak biltzen dituen dokumentala youtuben zabaldu du Udalak. Bertan, Nerea Amuchastegui, Juan Joxe Petrikorena, Mari Paz Artolazabal, Jokin Sorozabal eta Imanol Ansa ageri dira.

Alberto Agirre abesbatzaren hainbat bideo, ikusgai

Alberto Agirre abesbatzak Tomas Garbizu konposatzailearen Tourseko Martin Doneari abestia interpretatu zuen, San Martin parrokian emandako saioan. Kantu hori eta gehiago ikusgai daude Aiurri.eus webgunean, bideoen atalean.

ZORION AGURRAK



AMASA-VILLABONA / ANDOAIN
Zorionak Laia Huitzi Larrañaga
Laia azaroaren 22an urtebete egingo du, datorren astean. Zorionak birramonaren partetik, muxuak!

Zorion-agurrak Aiurri

www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean

Whatsapp bidez: 619 16 35 37

diseinua@aiurri.eus

Arantzibia 4-5, behea Andoain

Telefonoa: 943 300 732

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Azaroak 21, astelehena.

16:30-20:30.

URNIETAN, Gaztelekuan. Hitzordua egun berean hartzeko, 943 007 885 telefono zenbakira deitu.

TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.

Urnieta: 943 006 680.

Osasun Aholkuak: 900 203 050.



andoaINDARRA
euskaraz

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARA

Hitza, elea, berba.

Hitza da komunikatzeko dugun tresnarik indartsuena. Hitzarekin azaltzen dugu nor garen, zer nahi dugun eta nora goazen. Hitzez osatzen dugu gure memoria eta amesten gure etorkizuna.

Hitza eskainiz eta hitza eskatuz jokatzeko dugun ahobizi edo belarriprest. Hitzekin eraiki ditzakegu zubiak, josten ditugu sareak. Hitzez sentitzen gara komunitate. Hitzarekin elkar eragiten dugu.

Hitza eraikitzeko, hitza ehuntzeko, hitza harresiak botatzeko, hitza funtzioak berreskuratzeke, hitza irabazteko.

Hitza elkarri esateko, ahobizirik belarriprestari eta belarriprestak ahobiziri. 15 egunetan hitzez arakatuko ditugu ezezagunak zaizkigun territorio berriak.

Ekintza, ekimena, ekina

Ekintza da motibazioa gauzatzeko tresna, nahi dugun hori errealitate bihurtzeko baliabidea. Ekimenen bidez piztu dugu komunitatea, mantendu dugu sua bizirik. Ekinez lortuko dugu kalea irabaztea.

Ekintza-herria gara, milaka lagun mugiarazi eta auzolanean aritzeko gaitasuna duen herria. Auzoz auzo, herriz herri, jendea batu eta ekimen-olatu antola dezakeen komunitatea da gurea. Milaka lagun, milaka boluntario, ekintzak lotuta.

Ekimenaren ekinez irabazten ditugu espazioak, babesguneak, ariguneak. Ekinez egingo ditugu gure elkarte, enpresa eta erakundeak euskararentzako abegikor.

Ekintza harreman-sareak ugartzeko, ekimena ohiturak aldatzeko, ekina inertziak astintzeko.

Garaia, aroa, aldia

Hautuak harrotasunez erakutsi eta probatzeko garaia da Euskaraldia. Txapak jarrita ingurukoei gure nahia erakusteko garaia.

Garaia da urrats sendoak emateko, hautu pertsonal eta kolektiboak gehituz bide berriak urratu eta ohiturak zein joko-arauak aldatzeko.

Garaia orain ere bada, edozein momentu da egokia, baina garai hau da abagunea. Babesturik, taldean, batera aritzeko aroa da Euskaraldia.

Hitzek ekiteko gonbidapena da hau. 15 egun ditugu hitza ekintza bihurtuta, lorpen berriak izateko. Lorpen txiki, ertain eta handiak. Milaka, milioika lorpen. Lorpen askoren gehiketarekin aldatuko baititugu gizartearen inertziak ere.

Hitzak mugitzeko eta mugiarazteko boterea du. Hitzek ekinez gu geu mugituko gara eta gure ingurukoak mugiaraziko ditugu, baita mugiezinak diruditenak ere.

Eutsi hitzari, bultza ekimenarekin, orain da garaia!

Jantzi txapak, gora bihotzak: **Hitzek ekiteko garaia hasi da!**

Euskal Herrian, 2022ko azaroaren 17an



EUSKARALDIA